


ARRIAUNDIKO JUAN JOXE LIZASOREN OROIMENEZ



Eztizko malko mingotsa
darie eultzetako
erregin bakarti babestuei,
gelditu da joan-etorri
etengabea, ixildu aztoramenduaren
orroea une batez,
erregearen esku amultsurik ezdager
gaur, ezti lirdinga mehea bailitzan
eten da bart haren haria.
Euskal beltxaren deiari adi,
ez izatetik izatera eta izatetik
betikotasunerako hegaldia
abian da naturaren baitan,
Jaizkibelgo mazeletan,
Arriaundiko zelaietan,
lurretik lorera eta loretik erlera
doan mezua eultza nagusiko zereginei
lot gakizkien:

Banakoak dakar osotasuna
eta osotasunak damaio izena eta izana
banakoari.

* * *

Joan zen otsailaren 18an zendu zen Juan Joxe Lizaso Arrastua, Arriaundiko semea. Erlezain eta euskaltzale aparta, zernahitarako beti gertu, herriaren maitale eta gure hizkuntzaren defendatzaile sutsu. Zurekin bizi izan dugunarengatik mila esker Oroitzene AEK euskaltegiaren eta Orratx! Kultur Elkartearen izenean.

JOXE LUIX AGIRRETXE